

XXI. mendeko euskaldunak: "Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!"

Kike Amonarriz

Tribu berriak eta ez horren berriak

Ezertan hasi baino lehen, gazte batzuk aurkeztu nahi dizkizuet. Ezagunak ditut denak; batzuk familiakoak dira, beste batzuk lagunen seme-alabak, badira *Mihiluzen* edo urte hauetan han-hemenka emandako hitzaldietan ezagututakoak, eta beste batzuk kalean eta auzoan topatu ditut. Euskal Herrian bizi dira eta denak euskaldunak dira; hobeto edo okerrago denek dakite euskaraz. Gazte normalak dira, baina oso desberdinak elkarrengandik. Bakoitza "tribu" batekoa da.

Seguru nago, zuek ere, "tribu" hauetako gehientsuenetako gazte gehiago ere ezagutzen duzuela. Ea horrela den.

1. tribua: Euskal Herrian en erderaz y kito!

- **Aurkezpena:** "Oso giro erdaldunetan bizi gara. Gure inguruan euskara aditzea, Donostian 30 milioi azpiko etxebizitza aurkitzea baino zailagoa da."

- **Ezaugarriak:** Nonahi aurkituko dituzu eta edozein adinetakoak izan daitezke. Ikasketa-maila, lanbide eta gizarte-maila guztietan daude. Zenbait ingurunetan tribu nagusia edo bakarra da. Gehienak Euskal Herriko eremurik erdaldunenetan jaio eta bizi badira ere, Lekeitio, Tolosa edo Lesakan ere topatuko dituzu. Euskaratik erabat urrun bizi dira. Euskararekiko indiferentzia da nagusi hauen artean, nahiz eta beraien artean, euskararen aurkako jarrera dutenak ere, egon, badauden.
- **Esames-eredua:**
Hola, ktal? nos juntmos hoy a ls 7? bsos. t llmo luego

2. tribua: *Kaixumuxumuxu*

- **Aurkezpena:** “Gureztat euskara kamixeta baten edo pirtzin baten antzekoa da, apaingarria: Aupa, kaixo, aio eta hori bai, muxux! Eta hortik aurrera? Erdera! Pues en ke va a ser, lagun?”.
- **Ezaugarriak:** Hauek ere nonahi aurkituko dituzu. Aurrekoek baino harreman gehixeago dute euskararekin. Ulertzeko arazo handirik ez dute, baina euren mihiek aspaldi ahaztu zituzten euskararen ebakerak eskatzen dituen mugimenduak. Aurrekoen aldean gazteak dira eta, oro har, euskararekiko jarrera indiferentea badute ere, badiote halako sinpatia bat. Euskararekin harreman gehiago izateko aukerarik balute, batzuk erabiltzera ere animatuko lirateke.
- **Esames-eredua:**
Iepa, ktal? nos juntmos hoy a ls 7? mxx

3. *Kutsidazu bidea XBL!!!*

- **Aurkezpena:** “Mandoak baino... buruhandiagoak... edo burugogorragoak? Beno, dena delakoa ere... euskaldunok gara! Nahiz eta Barakaldon edo Tuteran bizi, gu euskaraz egin nahi

XXI. mendeko euskaldunak: "Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!"

dugu, kostatu ala kostatu. Gutxi dakigu, ez gaude ohituratuta, baina mekaguenlaletxe, gu euskaraz!"

- **Ezaugarriak:** Gure geografia osoan barreiatuta badaude ere, ugarriagoak dira hiri handietan eta zonalde erdaldunetan. Gehienak, 25-45 urte bitarteko adin-multzoan sartzen dira eta maiz aurkituko dituzu euskararen inguruko ekitaldietan. Batzu-batzuk seme-alabak izan berriak dira.
- **Esames-eredua:**
Kaiso, zr moduz zaude? nahi duzu, elkartuko gytezela gaur 7tan?

4. Euskañola nahiz eta harro nago

- **Aurkezpena:** "Aizue! Guk hitz egiten dugu como podemos. Ke horrela ere, asko kostatzen zaigu! Eske guk ezin dugu hitz egin de otra manera. Euskañolez egiten dugu eta poco a poco ari gara euskara hobetzen. Si además, mundu guztiak hitz egiten du euskañolez... edo ez?"
- **Ezaugarriak:** Gehienak gazteak dira, baina beste adinetan ere aurkituko dituzu. Nabarmen, horrela hitz egiten dutenak, batez ere gazte hiritarrak dira, euskalduntze-prozesua amaitu ez dutenak edo euskaraz gutxitan egiten dutenak. Eta neurri handiagotan edo txikiagoan, ia euskaldun guztiak izan gaitzke tribu honetako partaideak.
- **Esames-eredua:**
Aupa, zln? nos juntmos gro 7tn? lasai k t llamo. mxx

5. Besterik ezagutu ez eta... "Xuxen"!

- **Aurkezpena:** "Eta norena da errua, gure herrian euskalkian hitz egin zuen azkena Newtonek grabitatea deskubritu baino lehen hil bazen? Hori bai, guk erdarakadarik, ezta ordainduta ere!"

- **Ezaugarriak:** Euskara berreskuratu den zonaldeetan eta hirietan bizi dira. Gehienak, euskaldun berri euskaltzaleak dira, eta asko gazteak. Batuaren aldeko jarrera irmoa duten euskaldun zahar alfabetatuak eta militanteak ere topatuko dituzu hauen artean.
- **Esames-eredua:**
Kaixo, zer moduz? elkartuko al gara gaur 7etan? musuak. gero deituko

6. Euskalhirimix

- **Aurkezpena:** “Gu, euskalki-trafikanteak gara. Import-export. Gure herrian euskalkirik ez dagoenez, pisukide eta parrandakideek dakizkitenetatik elikatzen gara. Gurea, mix-kalkia da”
- **Ezaugarriak:** Gazteak dira eta hiriburuetan edo hirietan bizi dira gehienak. Euskaldun berriak eta euskaltzaleak. D ereduan euskara batua ikasi dute baina, adierazkortasunez eta era kolokialean hitz egiteko zerbaiten falta sumatzen dute. Euskalkiak hartu dituzte gaitzaren botikatzat.
- **Esames-eredua:**
Aupa, zln? gar 7tn elkrtuk ga? mxuk. geo deitxukoizut.

7. Gukolaitzeittedeu

- **Aurkezpena:** “Guk olaitzeittedeu ta ola idaztedeu. Zenaizue ba, wain batuaz idazten hastea eo? Puxka bateako zaudete ba!”
- **Ezaugarriak:** Ingurune euskaldunetako heldu alfabetatugabeak edo gazte ez ondo alfabetatuak. Gehienek, ez dute batua menderatzen edo ez dira oso batuzaleak. “(Beren) kaleko euskara” defendatzen dute sutsuki, baina ez dute beste kaleetakoekiko interes berezirik.

XXI. mendeko euskaldunak: “Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!”

- **Esames-eredua:**

Aupa, zmoz? juntaukoalgea 7tan? mxk. geo deitukoizut

8. *Geure amaren euskerea defendatuko dot!*

- **Aurkezpena:** “Geure hizkuntza eta geure euskalkia geuk jagoten ezpadoguz, jai dekogu. Nor arduratuko da eurekaz?”

- **Ezaugarriak:** Ongi alfabetatutako euskaltzaleak dira. Adinean gazte-helduak eta batua menderatzen dutenak. Aurreko tribuaren praktiketara hurbildu badaitezke ere, euskara jasoagoa dutela antzematen zaie berehala. Beren jarrera, hausnarketa baten ondorio da; jarrera ideologikoagoa da. Gehienek, euskara dute lanbide.

- **Esames-eredua:**

Kaixo, zmoz? elkartukoalgea 7tan? mxk. geo deituko

9. *Bat egin dezagun!*

- **Aurkezpena:** “Aizue! Bada, guk batuaz idazten dugu, euskaldun guztiek ulertzeko eran, eta ez zaigu bidezkoa iruditzen txokokerietara jotzea grazia edo adierazkortasuna lortzeko”.

- **Ezaugarriak:** Hauek ere, ongi alfabetatutako euskaltzaleak dira. Adinean gazte-helduak eta batua menderatzen dutenak. Aurreko tribuaren ezaugarri beretsuak izan arren, oso ondorio desberdinetara heldu dira –kontrajarriak direla esan genezake–. Hauena ere jarrera ideologikoa da, hausnarketa baten ondorioz hartutakoa. Gehienek ere, euskara dute lanbide.

- **Esames-eredua:**

Kaixo, zmoz? 7tn elkartuko? deituko dzut... oroitzn banyz, karkarkar. izn untsa.

10. Erasmuslariak

- **Aurkezpena:** “Sorry! Eta honi guztiari atzerriko hizkuntzen ukitu bat emango bagenio? Don’t forget! Mezua atzeritik ari naiz bidaltzen! Edo ez al zarete ohartu gu European etxean bezala mugitzen garela? Bai-by!”
- **Ezaugarriak:** Gazteak dira. Euskaldunak. Atzerrian ikasi dute edo egonaldiak egin dituzte. Etorkizunean kanpoan lan egin behar izatea, aukera posible gisa ikusten dute. Ingelesa ongi samar menderatzen dute eta beste hainbat herrialdetako jendearekin ohiko harremana dute teknologia berrien bidez.
- **Esames-eredua:**
Hello, Jn nice. jauar yu? 7tan elkartuko? arribdrtxi

Aurkeztu dizkizuedan lagunek oso desberdinak diruditen arren, elkarrekin bizi dira ikasle pisuetan, lankideak dira, kiroldegian elkartzen dira edo taberna berdinetan ibiltzen dira. Tribu horietako batzuk ezagunak genituen, baina beste batzuk heldu berriak dira gure ekosistemara edo lehen ez zuten indarra eta hedadura hartu dute, euskaldungoan aurki daitekeen aniztasun hau, berri samarra baita.

Batuaren sorrera, irakaskuntza, belaunaldien arteko eten linguistikoa, eta hedabideak izan dira, besteak beste, aniztasun hori eragin duten faktoreetako batzuk. Azken hamarkadan, bestalde, Internetek, digitalizazioak eta telefonia mugikorren hedapenak, tribu berriak sorrarazi dituzte.

Giza paisaia eta beronen praktika linguistikoak aldatu egin dira gure inguruan. Ikusi ahal izan dugun bezala, gainera, era guztietako jarrerak aurki ditzakegu: euskarari tinko eusten dioteneratik hasi eta sekula erabiltzen ez dutenetara; batua irmoki defendatzen dutenak batetik eta euskalkiak erabili behar direla uste dutenak, bestetik; “*Laissez faire, laissez passer*” liberala defendatzen dutenak edo inter-

bentzionismoa ezinbestekoa dela sinesten dutenak. Eta aldaketa garai guztietan gertatu ohi den bezala, beldur eta kezka berriak sortu dira euskaltzaleon artean.

Aldaketa sakonetako garaiak

Hizkuntza komunitateen bilakaera, faktore askoren eraginpean dago. Hizkuntza komunitateen indartzea, ahultzea edo galera esplikatzeko erabilgarriak dira askotako arrazoiak eta kausak aurkituko ditugu gizateriaren historian: inbasioak, gaixotasunak, arrazoi ekonomikoak, hazkunde edo murrizte demografikoak, migrazioak, erlijio arrazoiak... Hizkuntza komunitateen bizi-indarra etengabe aldatzen da; ez da inoiz bera. Are gutxiago, mundua gero eta txikiagoa, gero eta bateratuagoa den mende hasi berri honetan. Globalizazioa, iraultza teknologikoa, krisi ekonomikoa, deslokazioa, migrazioak, digitalizazioa, eleaniztasuna, laikotasuna edo familia eredu aldaketa bezalako kontzeptuek eragin zuzena dute pertsona, herri eta estatuen antolaketa eta harremanetan, eta beraz, baita hizkuntza komunitateen eta hizkuntzen artekoetan, hizkuntzen erabilera eta berauekiko pertzepzio sozialetan eta jarreretan.

Aldaketa sakoneko garaiak bizi ditugula esan ohi da. Nolanahi ere, sakoneko aldaketarik gabeko garairik izan ote den galdetu beharko genioke gure buruari. Ez da kasualitatea, azken urte hauetan, aldaketekiko beldurra, bibliografia sozio-ekonomikoan asko jorratu den gaietako bat izatea. Kalitate-sistemen eta bikaintasunera iristeko prozeduren oinarrietako bat, enpresa eta taldeetan berrikuntzari eta aldaketari zaion beldurra gainditzeko formulazioak eta proposamenak dira. Zenbat ale saldu ote zituen, autobideetako edozein restopetan aurki zitekeen Spencer Johnsonen "Who Moved my Cheese?"¹ libu-

¹ SPENCER JOHNSON, M.D. (1988): *Who Moved my Cheese?*. G.P. Putnam's Sons. N.Y.

(2000): *¿Quién se ha llevado mi queso?* Ed. Urano. Barcelona.

ruak? Bertan jorratzen diren ideiak honela laburbildu daitezke: aldatetarako gertatu egiten dira; beraz, har iezaiezu aurre. Kontrola itzazu eta garaiz egokitu aldatetara. Alda zaitez, balia itzazu eta goza ezazu aldatetekin. Enpresei begira eta neoliberalismoaren garairik loriosenean zabaldutako ideia hauek, baliagarriak gerta dakizkiguke, hizkuntzaren inguruan garatu nahi ditugun hausnarketarako, gure premia eta jokamoldeetara egokitu eta jarri behar zaizkien mugak ipiniz gero.

Izan ere, ez daukagu Darwinen teoriarik errepasatu behar hizkuntzek, izaki bizidun guztiek legez, eboluzionatu egiten dutela jakiteko, eta bilakaera horren oinarrian, inguruarekiko moldaketa dagoela jakiteko; borondatezkoa batzuetan, behartua bestetan, eta bietatik duena gehientsuenetan. Ez dut uste kreazionistarik dagoenik gure artean, eta ez naiz gehiago luzatuko puntu honetan.

Euskarak bizi edo/eta nozitu dituen aldatetarako begiratzeko moduetan egon liteke, ordea, gure arteko lehen alde esanguratsua. Xabier Erizeren² hitzak dira: “*Euskararen historiatik nabarmenena ez da bere higadura edo galera, bere biziraupena eta garai berrietara egokitzeko erakutsi duen ahalmena baizik*”. Bere ikuspuntuarekin bat eginez, aurreratu dezadan garatuko dudako diskurtsoa, “Galeraren paradigma”tik baino, “Biziraupenaren paradigma”tik bideratuko dudala. Izan ere, miraria baita, euskaldunon hizkuntza komunitatea XXI. mendera duen dinamismoarekin iritsi izana: munduko hizkuntza boteretsuez inguratuta, demografikoki ahul, barne-leialtasun ez ikaragarri sendoz, inguruko hizkuntzekiko distantzia linguistiko handiz, ahozko erabilera murriztua mendeetan zehar, inoiz administrazio-hizkuntza izan gabe, eta populazio guztia elebidundurik. Indartsuagoak galdu dira bidean.

² ERIZE, X. (1977): *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936; Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxien bizitza* Nafarroako Gobernua. Iruñea.

XXI. mendeko euskaldunak: "Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!"

“Galeraren paradigma” diagnosirako guztiz baliagarria gertatzen zaigun ber, gero eta garbiago dut “Biziraupenaren paradigma”k eskain diezazkigukeela etorkizun hobe bat lortze aldera aplikatuko beharko genituzkeen terapiarako klabeak. Beste hitz batzuetan esanda: etorkizuna baikorra da; edo gutxienez, ezkor aktiboena.

Dabilen harriari, goroldiorik ez

Hizkuntza guztiak aldakorrak eta heterogeneoak dira, eta hiztun guztiok eraldatzen dugu hizkuntza gure bizitzan, egokieren arabera modu desberdinetan erabiltzen dugularik. Are gehiago, ez dago hizkuntza isolaturik; denek eragiten dute gutxi edo gehiago beste hizkuntzaren batean edo batzuetan; eta alderantziz. Eragin horiek, baina, oso jite eta indar desberdinekoak dira, hizkuntza eta egoera desberdinei dagokienez. 1953an Uriel Weinreichek³ *“Languages in contact”* argitaratu zuenetik, kontaezinak dira gaiaren inguruan argitaratutako liburu eta artikuluak.

Esan genezake hizkuntza bakoitzaren garapena bi indar desberdinen eraginean dagoela: barne-eboluzioa batetik (indar bateratzaileen eta banatzaileen arteko borrokan, Saussurek⁴ aipatzen zuen bezala) eta hizkuntza ukipenaren ondorioz, kanpotik eragindako aldaketak bestetik. Euskarak ere, bi indar horien eraginean eboluzionatu du, aldatu da eta ari da aldatzen. Indar horien nondik norakoak azaltzeko, ordea, ezinbestekoa da hizkuntza komunitateen historia politiko eta sozio-ekonomikoa aztertzea.

Euskarari gagozkiolarik, bere bilakaera eta euskalkien banaketa sakonki aztertu dituen Koldo Zuazok dioen bezala: *“Euskal Herriaren*

³ WEINREICH, U. (1996): *Llengües en contacte*. Bromera. Alzira.

⁴ SAUSSURE, F. de (1973): *Curso de lingüística general*. Losada. Madrid.

*zatiketa administratiboa eta euskararen ofizialtasunik eza*⁵ izan dira euskararen batasuna eragotzi eta elkarrengandik urrunduriko euskalkiak sortu izanaren arrazoi nagusiak.

Euskalkien arteko urruntze-prozesua azkartu duten beste faktoreen artean, orografia, bideak eta komunikabideak eta harreman-sare ekonomiko eta sozialak aipa genitzake. Funtsean, hizkuntza-komunitate bat, harreman-sare bat da, eta faktore horiek dira harreman-sare horien sorrera eta bilakaera esplikatzen dutenak. Horregatik, gaur egun, harreman-sare horiek eratzeko baldintzak aldatzen ari diren neurrian aldatuko dira hizkuntzak eta hizkerak.

Gure historiak garbi erakutsi digu kanpoko politika erasokorren eraginari, bertoko klase agintarien utzikeria, eta kasu batzuetan, erabateko bazterketa gehitu behar zaizkiola. “Erdara ez zen bakarrik kapaz, euskarak lagundu dio” zioen Txirrita bertsolariak. Gai honen inguruan galderak pilatu nahi dituenarentzat irakurketa kitzikagariak suertatuko zaizkio, Koldo Mitxelenaen beraren idazkiak⁶, edo José María Larrea⁷ edo Patxi Salaberri⁸ bezalako lanak. Merezi du, azken honek atonduriko liburua arretaz irakurtzea, ohartzeko, euskal idazleek bertoko agintarien zabarkeria salatu dutela batez ere; “kanpokoen” erasoak nahikoa berandu hasten direlarik aipatzen.

Euskarak biziraun badu ere, galera eta gainbehera sentimenduak konstante bat izan dira gure literaturan eta hizkuntzaz arduratu direnen artean. Ia mende bateko aldea duten bi aipamen ekarriko ditut gogora. Lehenengoa, “*Genio y lengua*” euskal soziolinguistikaren obra aitzindaritik jaso da⁹:

⁵ ZUAZO, K. (2008): *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Elkar. Donostia

⁶ MITXELENA, K. (2001): *Koldo Mitxelena gure artean*. Alberdania. Irun.

⁷ LARREA, J.M. (1994): *Euskaldungoa erroizturik*. Pamiela. Iruñea.

⁸ SALABERRI MUÑO, P. (2004): *Euskal klasikoan atarian*. Pamiela. Iruñea.

⁹ MOKOROA, J.M. “Ibar” (1936): *Genio y lengua*. Tolosa.

XXI. mendeko euskaldunak: “Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!”

“En cualquiera de nuestras poblaciones hoy bilingües que no lo fuesen hace treinta o cuarenta años, escójase una familia de la clase normal, en la que los padres pertenezcan a la generación netamente euskaldun y los hijos a la del período de transición; y anótense, lápiz en mano, las palabras y formas verbales, giros y modismos, que, abundando en el lenguaje de los primeros, no los usan ya (aunque los entiendan), los segundos. Nosotros tenemos dedicado un mes entero a este ensayo y podemos ofrecer datos abrumadores”.

Bigarrena, Bernardo Atxagaren “Soinujolearen semea”¹⁰ eleberri-
tik hartua da eta aldaketa hauen dimentsioaren beste ikuspegi bat
ematen digu:

*“Obaba bezalako leku ez printzipaletan behintzat gutxiago
aldatu zirela gauzak Jesusen jaiotzatik telebista azaldu arte –bi
mila urteetan– telebistaz geroko berrogeita hamarretan baino
(...). 1960an, eta baita 1970ean bertan ere, Obabako nekaza-
riek antzinako mendeetako aire hori zuten, eta, zentzu hertsian,
beste aberri batekoak ziruditen. Bete egiten zen haiekin, L.P.
Hartleyk esana: “Iragana leku arrotza da, beste modu batean
hitz egiten dute han” (...) Baina ez zen bakarrik hitz egiten zute-
na, lexiko zahar hura; isiltzen zutena ere bazen. Hainbat hitz,
gaurko munduan arruntak, ez zituzten sekula ebakitzen.”*

XX. mendean, eta bereziki beronen azken hamarkadetan gure hiz-
kuntza komunitateak bizi izan dituen aldaketak ikusita, esan genezake,
seguruenik, euskarak bere historian inoiz ezagutu dituen aldake-
tarik sakonenak bizi izan dituela: lehenengo aldiz gure historian ez

¹⁰ ATXAGA, B. (2003): *Soinujolearen semea*. Pamiela. Iruñea.

dago euskaldun elebakarrik, euskaldun gehienak alfabetatuak dira, gazte euskaldun gehienak jatorriz erdaldunak dira, berreskurapen prozesu bati eman zaio hasiera, euskara inoiz erabili ez den funtzioetara heldu da, baina bere gotorleku izan diren familian eta ingurune hurbilean inoiz baino ahulago da.

Hizkuntza komunitatean norabide kontrajarrian diharduten faktore horien eraginaren ondorioz, portaera eta praktika soziolinguistiko berriak agertu dira.

Egoera berri baten sorrera

XX. mendearen amaieran, euskararen eta euskaldunon hizkuntza komunitatearen ezaugarriak eta barne-egitura irauliko dituzten gertaera garrantzitsu asko gertatzen da.

Euskararen egoeraren sinbolo bihurtu den botila erdi bete/erdi hutsaren adibidez baliatuz esan genezake, hamarkada hauetan, botila betetzen joan dela aspektu hauetan (guztion gogoan daudenez, garrantzitsuenak bakarrik aipatuko ditut): Euskara batua, euskararen hedapena irakaskuntzan, ofizialtasuna (partziala izan arren), euskararen eskaera eta prestigio sozialaren indartzea, euskarazko hedabide publiko nahiz pribatuen sorrera, euskarazko kultur produkzioaren indartzea, erabilera soziala handitzea, etab. Bi hitzetan: euskara indartu egin da maila demografiko, geografiko nahiz funtzionalean.

Botila erdi hutsa ikusten dugu, aldiz, honako aspektuetan: ez da lortu hurrengo belaunaldiak osorik euskalduntzea, ezagupenaren eta erabileraren arteko tartea gero eta handiagoa da, ofizialtasuna ez da euskararen eremu geografiko osora hedatu, ofiziala den eremuetan ere hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoa da, euskararen balio sinbolikoak garrantzi handiagoa du balio funtzionalak baino... Eta,

Mikel Zalbide¹¹, gure hainbat planteamendu berrikustera bultzatzen digun artikuluan adierazten duen bezala, diglosia galdu dugu; alegia, hizkuntzen arteko konpartimentazio sozio-funtzionalean euskara nagusi zen eremu informal-intimoak (*Errazegi “gainditu” uste ohi dugu diglosia (...) Horrek mantendu gaitu bizirik eta, non eta euskara funtzio guztietan edo gehienetan jaun eta jabe izango den etorkizun kolektiborik eskuratzen ez den han-hemen, konpartimentaziorik gabe okerrera, ez hobera, egingo du euskararen osasunak*). Bi hitzetan: euskara oraindik oso ahula da maila demografiko, geografiko nahiz funtzionalean.

Aipaturiko fenomeno hauei, XXI. mendearen lehen hamarkada honetan digitalizazioa eta teknologia berrien hedapena gehitu zaizkie. Pertsonen arteko harremanak, kultur kontsumo ohiturak eta bizimodu bera eraldatu egin dira. Eta globalizazioaren ondorioz, ingelesa munduko “lingua franca” bihurtu da. Berrikuntza hauek, aldaketa ideologiko sakonak ari dira eragiten gizartean, hizkuntzen balioaren inguruan, hizkuntzen arteko harremanetan edo hizkuntzekiko leialtasunari dagokionez. Adibide xume bat jartzearren, ohar gaitezen nola ugaldu diren ingelesezko izenak gure artean: erakundeen izenak, musika-taldeak, dendak... Eta bide batez, esan dezagun, praktikan frantsesa Hegoaldeko irakaskuntza sistematik desagertu izanak, areagotu egin duela Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko urrunketa.

Aldaketa hauek guztiek eragin zuzena izan dute erabiltzen den euskaran. Mende honen hasierarekin batera lehendik zetozen joera batzuk indartu egin dira eta kode-nahasketarako joera nabarmen hedatu da gazteen artean. Gaztelaniaren eta frantsesaren aldeko politika erasokor eta baztertzailleek, euskaldunen erabateko elebiduntze-

¹¹ ZALBIDE, M. (2008): *Oinarrizko txostena irakurri ondoko zenbait ohar* in *Euskara21: Batzorde-atal bereziko kideen ekarpenak*. Eusko Jauriaritza-Kultura Saila. Gasteiz.

ak, hizkuntzaren transmisioan belaunaldien artean gertatu den etenak, euskara batuaren hedapenak, eta gero eta ugariagoak diren jatorri erdalduneko hiztun berrien eraginak, indartu egin dituzte, “euskañol” edo “frantseuskara” bezala ezagutzen ditugun fenomenoak.

Egoera honek sorturiko kezkarri erantzun nahian landu genuen Euskararen Aholku Batzordearen eskariz “Hizkuntza kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako”¹² txostenera jo dezake aspektu hauen inguruko gure ikuspegiaren berri zabalago jakin nahi duenak. Bertan azaldutakoa nahikoa ezaguna denez, ordea, ez naiz luzatuko.

Euskañolaren eta frantseuskararen ezaugarri dira kode-alternantzia etengabea, eta mailegu eta kalkoen ugaritasuna. Kode-alternantzia, hizkuntzen galera-prozesuetan, elebiduntzearen lehen faseekin identifikatu ohi da eta hizkuntza aldaketaren (galeraren) aurreko faseetat jotzen da. Horregatik, hizkuntzen nahastea euskararen kalterako dela pentsatu izan da beti, baina uste hori gurean ñabartu egin behar da (Biziraupenaren paradigmatik aztertu, alegia). Batetik, euskalduntzen ari direnek edo giro erdaldunetan hazi eta bizi direnek erdaratik euskararako bidean aurrera egingo badute, ezinbestean bi hizkuntzak nahastu egin behar izaten dituzte, euskarazko adierazpidea hobetu eta barneratu bitartean. Bestetik, euskaldun askok, bere formazioaren aspektu ugari erdaraz jaso izan ditu, eta beraz, gai horietaz jardungo badu, ezinbestean apoiatu behar du erdararen makuluan.

Kasu horietan, beraz, positiboki baloratu beharko genituzke euskañola eta frantseuskara, euskarara heltzeko edo euskarari eusteko bitarteko ezinbestekoak direlako. Gertatu bat ipiniko dut adibide modura. Ikaskide ohien bazkari batean, gaztetan euskaraz piperrik ere ez zekien eta gaur egun ingelesa euskaraz irakasten duen adiskide

¹² EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004): *Hizkuntza kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritzak-Kultura Saila. Gasteiz.

batek aitortu zidan euskaraz hitz egiten hasi zela euskaldunok tranpa egiten genuela, alegia, euskara eta gaztelania etengabe nahasten genituela ohartu zenean. Harategi batera sartu eta: “*Aizak, xerra onak jarri, de éstas de aquí, eta ez niri gezurrik esan, que mañana tengo gente de fuera eta jatun onak dituk, y las que me pusiste el otro día ez zeudean batere samurrak eta ...*”. Hori ikusita, zekien euskara apurra erabiltzen hasi omen zen: “*Xerrak nahi ditut, Zenbat? Kilo bat, ¿De éstas? Bai, ¿Para qué? (Zalantza) Mmmmm...Para freír! Orduan, hemendik jarriko dizkizut (Funtzionatu dit!!!)*”.

Maila formalean, aldiz, nabarmena da interferentzien murrizketa, batez ere euskarazko irakaskuntzari esker. Hizkuntza formalak inoiz ez bezalako garapen funtzionala eta hedapen soziala lortu dituenean, ordea, hizkuntza ez formalaren gabeziak eta interferentzien erabilera gehiago nabarmendu dira.

Gurean interferentziak erabiltzeko arrazoi nagusien artean honako hauek aipatu izan ditugu¹³:

- Adierazkortasuna lortzeko gaitasun linguistiko nahikorik eza.
- Euskarara heltzeko bidetzat hartzea.
- Besteen hizkerarekin bat egiteko modua.
- Erreferentzia eta irudi sinboliko gehienak erdaraz egotea.
- Lokuzioak eta esaera zaharrak ez ezagutzea edo ez ondo interpretatzea.

Konpara ditzagun arrazoi hauek, Mireia Galindok¹⁴ kode-alternantziara jotzeko Kataluniako gazteen artean aurkitu dituen arrazoiekin:

¹³ AMONARRIZ, K. (2008): *Gazte hizkerak, hizkera gazteak in Bat Soziolinguistika aldizkaria*. 68.zenb. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.

¹⁴ GALINDO, M. (2008): *Les llengües en joc, el joc entre llengües*. Pagès ed. Lleida.

- “Alternança a causa de l’interlocutor.
- Alternança per expressar una segona veu.
- Alternança a causa de la competència lingüística.
- Alternança per incorporar expressivitat.
- Alternança per insistir o remarcar.
- Alternança per aconseguir efectes lúdics o humorístics”.

Bi hizkuntzen egoerak desberdinak izan arren, batean nahiz bestean, kode-alternantziarako dauden arrazoiak berberak dira. Fenomeno hauek ohikoak baitira hizkuntza ukipenezko egoeretan. Ez da harritzekoa, beraz, gureen oso antzeko kezka aurkitzea antzeko egoeretan dauden beste hizkuntzen artean ere. David Crystalek, “Hizkuntzaren iraultza”¹⁵ liburuan dioen bezala, “kode-aldaketa deitzen zaio pertsonen komunikatzeko bi hizkuntza edo gehiago aldi berean erabiltzeari (...) Gaur egun kode-aldaketa erabiltzen dutenen kopurua erabiltzen ez dutenena baino handiagoa da. Hizkuntzari buruz dugun ohiko ikuspegia aldatu beharko dugu”. Franglisha, tex-mexa, espanglisha, euskañola... mundu mailako gertaera orokor baten forma lokalak dira. Mark Abley¹⁶ kazetariak, munduko hainbat hizkuntzaren egoeraren berri eman du, hitzunen bizipen eta testigantzetan oinarritutako kontaketa mamitsuan, eta hizkuntzaren jarraipenaren nolakotasunari buruzko kezka unibertsala dela ikusarazi digu. Adibide batzuk jartzearen: Australian hizkuntza desberdinetako aborijen gazteek pigdinak sortu behar izan dituzte multinaziolanen pistoleroetatik ihesi misioetan elkartu behar izan dutenean; Australian hitz egiten den tiwieraren kasuan, zaharrek tradizionala darabilte, gazteek, berriz, betiko aditz formak baztertzen dituen tiwiera berria darabilte; errusieraren, frantsesaren edo alemanieraren hitzun gazteek ingelesetik

¹⁵ CRYSTAL, D. (2007): “Hizkuntzaren iraultza” Erein. Donostia.

¹⁶ ABLEY, M. (2006): *Aquí se habla. Un recorrido por las lenguas amenazadas*. RBA. Barcelona.

harturiko hitzak erabiltzeko joerak kezkatzen ditu agintariak; manxera berpizten ari direnek egunero sortzen dituzte tradizio berriak, inolako konplexurik gabe; askoren ustez garbizalekeriak sekulako eragina izan du Okzitaniako probentzalaren galeran; mohawk herriak eztabaida biziak izan ditu hizkuntzaren estandarizazioan hartu beharreko ereduaren inguruan; Galesen hizkuntza kalitatearen inguruko eztabaida puri-purian dago...

Katalaneraren maileguak aztertu dituen Xavier Rullek¹⁷, “interferentzia linguistikoa” bezala ezagutzen den egoera aipatzen du hizkuntza minorizatu batek, hizkuntza nagusitik hitzak mailegutzat hartzeko arrazoi nagusi bezala. Globalizazioaren eraginez, bestalde, gero eta ugariagoak dira era guztietako kontzeptu, objektu eta eredu sozialen trukaketa eta onarpena, eta beraiekin batera hitz arrotzen integrazioa. Arrazoi nagusi hori zehazterakoan, berriz, honako hauek aipatzen ditu:

- Beharra: ez dugu kontzeptu edo objektu berriak izendatzeko hitzik.
- Ukipena: Ukipen egoeran dauden hizkuntzek, ezinbestean trukatzeko dituzte hitzak eta esamoldeak, bakoitzaren indarrak markatuko duen intentsitatea.
- Moda edo snobismoa: maileguen erabilpena sozialki nabarmentzeko modu bat da. Ingeleseko edo frantsesezko hitzak erabiltzeak maila sozial bat adieraziko du eta erdarakadak erabiltzeak, kolokialtasuna.
- Gizartearen internalizazioa: batez ere eremu tekniko eta zientifikoetako maileguetan eragiten du.
- Utzikeria edo ezjakintasuna.

¹⁷ RULL, X. (2008): *Els estrangerismes del català*. Publicacions Urv. Tarragona.

Egoera honen aurrean, ezin gaitezke erori ez erabateko errefusatze jarrera batean, ez erabateko onarpenean. Oreka bat lortu behar da, euskarak berak izan ditzakeen alternatiba erabilgarriak lehenetsiz, eta onartzen direnak gure sistema linguistikora egokituz. Izan ere, askotan gertatzen zaigu, hiztegieta agertzen zaizkigun hitzak ez zaizkigula baliagarriak elkarrizketa arruntetarako. Joxerra Garziak maiz esaten duen bezala, “euskaraz dena esan daiteke, baina ez da dena esaten”. Euskarazko terminologiaren sozializazioan aurrerapauso sendoak eman beharrean gaude oraindik. Hedabideak elementu giltzarria izango dira horretarako, ezin baitugu ahaztu XXI. mendeko estandarra, nagusiki, hedabideek finkatuko dutela. Andu Lertxundik asmatutiko “esamesak” kontzeptuaren bidea oso emankorra izan daiteke zentzu honetan.

Antzeko kezkek topa daitezke hizkuntza nagusietan ere. Alex Grijelmoren ¹⁸ hitzak dira honako hauek:

“El idioma ya no evoluciona como lo decide el pueblo, sino como lo deciden las clases cultas que están en contacto con el inglés y se sienten perplejas ante él. O como deciden las grandes empresas y sus productos de aparente prestigio anglicado. No estamos ante una evolución que aporta palabras necesarias, sino ante una evolución que destruye nuestra riqueza, nuestro patrimonio histórico y cultural”.

Egoera honetan izan dezakegun arriskurik latzena, beraz, gure hizkuntzak dituen baliabideak baztertu eta adierazkortasuna edo efektu ludikoak lortze aldera, sistematikoki hizkuntza menperatzailetara jotzea da. Euskaldunok, gure premia komunikatiboak eta gabezia linguistikoak beti hizkuntza menperatzailearen bidez estaltzen baditugu,

¹⁸ GRIJELMO, A. (2004): *La punta de la lengua*. Aguilar. Madrid.

euskara degradatu egingo da. Prozesu hau muturrera eramanda, ulermen arazoak sor daitezke eta belaunaldien eta mugaren bi aldeetako hiztunen arteko komunikazioa eten. Esate baterako, maiz zaila zaigu iparraldeko eta hegoaldekooi elkarrizketa arruntetan elkar ulertzea: “Zurekin dragatu nahi dut. Bandaturik nauzu. Ez duzu kapotik? Futitzen naiz!” vs. “Hau rollo txungoa. Zurekin ligatu nahi dut. Zu ez zara enpanatzen eta ez rayatu”. Zailtasun hori ez da linguistikoa bakarrik; gure erreferentzia munduak ere oso desberdinak dira; oso erreferentzia gutxi partekatzen ditugu, gure harreman-sareak oso ahulak direlako. Askoz erreferentzia gehiago partekatzen dituzte Tolosako eta Cuencako gazteek; Tolosako eta Atharratzeko gazteek baino.

Izan ere, kode-aldaketa ohikoa duten hiztunen eta egoerekin batera, ezinbestekoa baita hizkuntza beregaina, sortzailea eta hizkuntza komunitate osoarentzako erreferentziala izango den estandar indartsua finkatzea eta garatzea. Euskañola eta frantseuskara norabide horretan kokatzen badira urrats positiboak izango dira, bestela, gure hizkuntza komunitatearen barne-desegitearen sintomatza hartu beharko ditugu.

Atal hau amaitzeko, bestalde, nabarmendu nahiko nuke, segur aski, inoiz ez dugula izan gure hizkuntza komunitatearen historian, euskararen horren ezagupen sakona izan duen gazte-multzorik. Are gehiago, tamaina ertaineko gure herrietan, hamarkada askoren ondoren, euskaraz, gaztelaniaz baino hobeto moldatzen diren gazteak ditugu.

Idazkera berrien sorrera

Mende berriaren hasierarekin batera *segapotoak*, *txatak*, *messengerak*, *esamesak*, *emailuak*, *tuentiak*, etab. etxekotu egin zaizkigu. Telefonia mugikorren eta Internet bidezko komunikazio sistema berrien ondorioz, lehen ahozko harremanetara mugatzen ziren joera batzuk

idatzizko jardueretara hedatzen hasi dira, nazioartean nagusitzen ari diren molde berriekin bat eginez.

Pertsonen eta herrien arteko komunikazio-moduak irauli egin dira; erabateko aldaketa izan dute; eta iraultza hori hizkuntzara iritsi da. Crystalek¹⁹ dioen bezala “hizkuntza-aro berria hasten ari da” eta ondorioz “hizkuntzetan pentsatzeko eta hizkuntzekin lan egiteko kontzeptuak berrikusi beharko ditugu”. Internet ezer izango bada, iraultza linguistikoa izango da.

Egoera berri honetan sortu diren hizkera/idazkera berriei “gazte hizkerak” deitu izan diegu nahiz eta “Hizkera gazteak” ere izenda genitzakeen, azken batean, gizarte osoa eta adin guztiak hartzen dituzten fenomenoak direlako. Hona hemen idazkera berri honen ezaugarri nagusiak:

- Hitz egiten den bezala idatzi nahi da. Kode idatzia ahozko kode-ra gerturatu da.
- Idazkera nahasia da. Gurean euskara eta gaztelania eta batua eta euskalkiak nahasten dira, oso proportzio desberdinetan, egoera soziolinguistikoen arabera, sarrerako “tribuen” kasuan ikusi ahal izan dugun bezala.
- Araua transgreditu nahi da. Gurean, batuak ordezkatzeko duen “ofizialtasuna”ren aurkako jarrera nabaria da, euskalkiekiko eta kaleko hizkerarako hurbilketa sistematiko bat dagoelarik.
- Talde-nortasuna sendotzeko bide bat da. Gertutasuna sentitzea oso garrantzitsua da.
- Adierazkortasuna indartu nahi da: mezu biziagoak, arinagoak, alaiagoak, zuzenagoak lortu nahi dira, estandarrak adierazten duen urruntasuna, zuzentasuna edo seriotasuna gaindituz.

¹⁹ CRYSTAL. D (2007): *op.cit.*

XXI. mendeko euskaldunak: "Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!"

- Laburdurak, indargarriak eta ikonoak ohikoak dira. Ortografiari eta puntuazio markei ez zaie inolako garrantzirik ematen.
- Forma berrien sorrera ahalbidetu da: “*ze ba etorri zea?*”, “*jota ona da*”...

Idazkera berri honek ere, beldurra eta kezka sortu du, bai etxean eta baita nazioartean ere. 2003ko Lazkaoko Kilometroen antolatzaileek eskatuta *Zazpiak Batman* kolektiboko kideek (Antton Olariaga, Asisko Urmeneta eta hirurok) *Segapotoen Mezu Sekretuak*²⁰ liburuxka kaleratu eta berehala, harrিতuta jaso genuen Ordiziako Jakintza Ikastolako DBHko ikasle batzuek hizkera berri haren aurka kaleratu zuten gutuna, non, besteak beste, honela zioten: “*lehen gutxi bagara euskaraz idatzi eta hitz egiten dugunak, horrela hizkuntza galtzen joango da, zentzurik ez duten laburdura horiekin, eta ez besteen erruz, gure erruz baizik (...) Argi eta garbi dago indar handia duten hizkuntzak (...) era batera idatzi edo bestera idatzi ez direla galduko baina euskaldun guztiok euskara horrela idazten hasten bagara euskara galdu egingo da*”. Gutuna jaso eta berehala, oso eztabaida-saio interesgarria izan genuen ikasle haiekin. Baina gutun hark zer pentsa eman zigun.

Garai hartan, *Zazpiak Batman* taldekoek ematen genituen hitzaldietan, esamesen inguruko atal bat genuen. Esamesek sektore batzuetan sortzen zuten kezka eta beldurraren aurrean, tarte hark hitzaldietan zer nolako arrakasta lortu zuen ikusita animatu ginen “Mihiluzen”ⁿ aitzindaria izan den “Esamesak” proba sartzera. Esamesen hizkera, batez ere, komunikatzeko eta jolasteko zela frogatu nahi genuen, bide batez, beldurtzeko inolako arrazoirik ez zegoela erakutsiz. Lortu dugulakoan nago.

Zeren, harrigarria bada ere, esamesen aldeko nahiz kontrako antzeko argudio kontrajarriak aurkitu ditugu bai gaztelaniaren eta baita

²⁰ ZAZPIAK BATMAN KOLEKTIBOA (2003): *Segapotoen Mezu Sekretuak*. Kilometroak 2003. Lazkao.

ingelesaren kasuan ere. Crystalek²¹ berak liburu bat eskaini dio esamesen hizkerari eta berak aitortzen duen legez, “*It is the extraordinary antipathy to texting wich has surprised me. I don’t think I have ever come across a topic wich has attracted more adult antagonism*”. Liburuan aipatzen duen bezala, jende asko sinestuta baitago idazkera berri honen eraginez ikasleei ahaztu egingo zaiela ongi idazten, nota oker-ragoak aterako dituztela edo hizkuntzaren kalitatea murriztu egingo dela.

Fenomeno berrien inguruko irakurketa kontrajarriak agertu ziren ere 2008ko apirilean FUNDÉU (Fundación del Español Urgente) erakundeak, Donemiliaga Kukulan antolaturiko “El español de los jóvenes” jardunaldietan.

Bertan agertu ziren jarreraren artean, Ana M^a Vigara ikertzailearena nabarmenduko nuke. Handik gutxira *Eroski* aldizkarian²² egin zioten elkarrizketan aipatzen zuen bezala (ideiak bildu egingo ditut): “*Gazteek gozatu egin nahi dute euren kideekin hitz eginez eta horretarako hitzen forma aldatu egiten dute. Forma horiek gazteekin erabiltzen dituzte eta gehienetan egoera ez-formaletan eta ia ahozkoetan. Hizkuntza garatu eta aldatu egiten da eta gaur egun guztiz okerra iruditzen zaigun erabilera bat arau bihur daiteke. Beraz, gazteen hizkera ez da pobrea. Zabaldu egin behar ditugu belarriak eta burua. Hori bai, gazteei kosta egiten zaie erregistroz aldatzea. Hizkuntza garatzeko eta lantzeko irakurtzea oso garrantzitsua da. Gazteek ez dute sekula idatzi gaur adina; baina gaur, ez dute idazten lehengo tokietan, ez lehen bezala, eta ez lehengo euskarrietan ere*”.

²¹ CRYSTAL, D. (2008): *txtng the gr8 db8*. Oxford University Press.

²² Ana María Vigara: *gazte hizkeraren ikertzailea* in *EROSKI* aldizkaria. 122. zenb. 2008ko ekaina.

Horiek guztiak irakurrita, esan genezake, gure egoera berezia bada ere, munduko beste hizkuntza gehientsuenen arazoak bizi ditugula; hori bai, egoera minorizatu batek berekin daramatzen arrisku berezietan.

Euskalkien garrantzia

Euskalkien inguruko eztabaidak oso jarrera desberdinak sortu izan ditu historikoki (euskara batuaren inguruan sorturiko etena gogoratu besterik ez dago), eta baita gaur egun ere. Horren adibide garbia dira Mendebalde Alkartearen VII. Jardunaldietan irakurritako txostenak²³. Estibaliz Amorrorturen tesiak bereziki interesgarriak egin zitzaizkidan. Guztiz bat nator berarekin, honako hauek esaten ditue-nean: *Hizkuntzak erabiltzen ez diralako galtzen dira eta ez beste batzuekin ukipenean eta aurreko egoetatik aldatuta dagozalako (...)* *Kalitate eta erderaren eraginaren auzian jarrera preskribatzaileak leuntzea komeni daukala uste dot (...)* *erregistro aldaketaren garrantzia eta funtzioa kontuan hartu behar doguz.*

Beste hizkuntza batzuetan argotetan aurkitu izan dute gazteek, nagusiekiko eta hizkuntza ofizialarekiko diferentzia markatzeko esparrua. Gurean, argota horren eskasa izanik eta estandarraren barruko erregistro desberdinak sozialki horren gutxi markatu direnez oraindik, gazteek alde hori markatzeko baliabide erakargarritzat jo dituzte euskalkiak.

Horretan asko lagundu du, “besteen” euskalkiekiko harreman bideak ugaltzea: hedabideak, unibertsitatea, musika, bidaiak, Internet... Orain dela gutxi arte, “bortz” non esaten zuten galdetuz gero, mundu guztiak Nafarroan erantzungo zizun. Gaur egun, aldiz,

²³ HAINBAT EGILE (2003): *Ahozkotasuna aztergai*. Mendebalde Kultura Alkartea. Bilbao.

galdetu Gasteiz edo Donostiako haur bati “bortz” non esaten duten eta “Telebistan” erantzungo dizu. Lehen geografiak adina bereizten edo bistaratzen ditu euskalkiak gaur egun programazioak.

Euskalkiez baliatzeko joera guztiz hedaturik dago gazteen arteko harreman informaletan (euskalkiak ezagutzen dituztenen artean behintzat). Duela gutxi, gai hauen inguruan gazte batekin solasean ari nintzela, Donostiako bere adiskide batek mezuak oso arraro bidaltzen zizkiola aipatu zidan. “Eta nola idazten dizkizu, bada? –galdetu nion. Eta bere erantzuna: “Batuaz bidaltzen dizkit!!!”

Euskalkietara jotzeko arrazoiez galdetu dugunean, hauek izan dira jasotako 5 arrazoirik aipatuena:

- **Hurbiltasuna:** Askoren ustez batuak distantzia komunikatiboa handitu egiten du eta euskalkiek, aldiz, murriztu, nahiz eta euskalki desberdinetan aritu.
- **Kolokialtasuna:** Kalekoago bihurtzen dute komunikazioa eta ez horren akademiko edo formal.
- **Benetakotasuna:** Zu kalean zaren bezala agertzen zara, batuaren “makillajetik” pasa gabe.
- **Intimitatea:** Gai pertsonalei heltzeko egokiagoak dira. Messengerrek edo sare sozialek, aurrez aurre aipatzen ez diren gaiak ukitzeko intimitatea eskaintzen dute eta euskalkiak horretarako egokiagoak dira. Gai serioak, berriz, batuaz jorratzen dira. Gauza bera gertatzen da webguneetako foroetan.
- **Jatortasuna:** Euskalkiak prestigiatu egin dira nortasun ikur gisa, lurraldearen eta jatorri geografikoaren marka eskaintzen baitute.

Euskalkietara jotzen bada ere, mezu eta idatzi horiek ez dira erabat egokitzen, gure aurreko belaunaldietako euskalkietara. Ezin dugu ahaztu, euskalkietara jotzen duten gazte horien artean, askok, euskalkiaren ezagupen mugatua duela. Euskalkia, ez da modu “puruan” erabiltzen, batuaren interferentziekin nahastuta baizik.

Aditzetan eta deklinabidean, gainera, gero eta ohikoagoa da, ez batu-koak ez euskalkikoak ez diren forma “egokitu eta kontsentsuatuak” erabiltzea.

Izan ere, arestian aipaturiko harreman sareak aldatu diren neurrian, euskalkien “ekosistemak” ere aldatu egin dira. Gertatzen ari diren aldaketa nagusien artean, honako hauek nabarmenduko nituzke:

- Euskaldun elebarririk ez dagoen moduan, jada ez dago, bere euskalkia bakarrik dakien haur edo gazterik: gutxi edo gehiago, denek ezagutzen dute batua. Nork gogoratzen ditu gipuzkerazko hilabete izen zaharrak?
- Norberarenak ez diren euskalkien presentzia ere, ohikoa bihurtu da euskaldunen inguruan, batez ere hedabideei, Interneti, kultur ekoizpenei (musika...) eta harreman gero eta ugariagoei esker. *Zelan, txo?* erabili izan da ligatzeko bizkaieraren eremutik kanpo.
- Gero eta euskaldun gehiago dago, euskalkia bizirik ez dagoen inguru erdaldunduetan.
- Haur eta gazteen euskalkiaren ezagupena, mugatua da zaharren aldean.
- Batuaren hainbat forma eta adiera komun, guztiz txertatu dira euskalkietan.
- Aitzitik, euskalkiek gero eta prestigio handiagoa dute gazteen artean.
- Euskal kulturaren ekoizpengune nagusiak Donostialdean kokatu izanak (ETB1, Euskadi Irratia, Gaztea irratia, Martin Ugalde, Argia, Gaztezulo, Elhuyar...), are gehiago makurtu du estandarraren balantza gipuzkeraren alde.

Horiek horrela eta iragarpenak egitea zaila izan arren, honako joe-
ra hauek indartu egingo direla uste dut:

- Euskal Herriko hiri ertain eta handietako haur eta gazte euskaldunen jatorri linguistikoa gero eta anitzagoa izango da. Guraso euskaldunen artean ere, euskalki desberdinekoak edo euskalkirik gabeak ugaritu egingo dira.
- Euskalki eta erregistro desberdinen erabilera gero eta nahasiagoa izango da, eta prozesu honek, euskalkien arteko hibridaziora eramango gaitu hedabideen edo teknologia berrien eraginez eta mugikortasun gero eta handiagoarengatik. (beti ere estandarretik gertuen dagoen gipuzkeraren eragina handiagoa izango delarik).
- Desberdintasunik handiena (harreman sareen) mugak markatuko du: Ipar eta Hego.
- Estandarra gero eta gehiago erabiliko da nahiz eta gazte hizkeran euskalkien forma eta elementuen presentzia handitu egingo den, adierazkortasuna lortze aldera.
- Forma horiek, estandarra aberastu egingo dute, eta batu estandarren forma gisa hedatuko dira, azkenean, estandarrean txertatzen ez diren elementuak galtzen joango direlarik.

Prozesu soziolinguistiko horien ondorioz, nire ustez, euskalkien eraldaketa eta bilakaera nabarmena izango da hurrengo bi belaunaldietan.

Aurrera begira

Hizkuntzaren kalitateari buruzko txostena landu genuenean, berehala ohartu ginen, asko ginela euskalgintzaren hainbat eremutan, txosten honetan aipatu ditugun gaiei buruz hausnarketan genbiltzarenak eta kezka bertsuen inguruan azalpen eta irtenbide bila ari ginenak. Txostena plazaratu eta gero, harrituta geratu ginen izan zuen oihartzunarekin eta lortu zuen adostasun mailarekin. Orduan zehazturiko proposamenen artean, badira azaldu berri ditugun aspektuei

begira baliagarriak izaten jarraitzen dutenak. Besteak beste, honako hauek:

- Euskarak lege-babesa izatea Euskal Herri osoan.
- Euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzea.
- Motibazioa lantzea eta “egokitasuna” esaten genuen haren aldeko giroa sustatzea.
- Hezkuntza sistemaren helburua eta ikasbideak egokitasunaren ikuspuntura moldatzea; gramatikaltasunetik komunikaziorako jauzia ematea, alegia.
- Hedabideetako programa edo sailak diseinatzerakoan, dagozkien hizkerak erabakitzea, bereziki landuz haur eta gazteei zuzendurikoak.
- Teknologia eta hedabide berrietan euskarazko produktuak eta zerbitzuak eskuragarri eta erakargarri egitea.
- Euskal Herriko haur eta gazteen harreman bideak ugaltzea.
- Eskolorduz kanpoko jardueren euskalduntze programei ekitea.

HPSk bideraturiko “Euskara21” eztabaidaren ondorio gisa aurkeztu den “*Itun berri baterantz*”²⁴ txostenaren amaieran, lanerako eremu guztiz baliagarria eskaintzen duten XXI. mende hasierako Hizkuntza Politikarentzako lehentasunezko ildoak zehazten dira. Berezi ki nabarmendu nahi nituzke honako hauek:

2. Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasgune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko.
6. Elebitasun pasiboa helduen munduan –eta gutxieneko helburutzat– areagotzea eta prestigiatzea.

²⁴ EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2009): *Itun Berri baterantz*. Eusko Jaurilaritza-Kultura Saila. Gasteiz.

9. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.

Euskaltzaindiak, 2004ko martxoan euskalkien erabileraren inguruko irizpideak plazaratu zituen “Euskalkien erabileraz irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan”.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak ere bide urratzaile diren bi proposamen landu eta osatu kaleratu ditu irakaskuntzari begira: “Zenbait orientabide erregistroen trataeraz”²⁵ eta aurkeztu berri duen “Ikastolen hizkuntza proiektua”²⁶.

Aipaturiko lan-ildoan osagarri gisa, honako hauek erantsiko ditut:

- Garrantzitsua da, ikuspegi eta eduki soziolinguistikoak txertatzea euskararen irakaskuntzan, bizi dugun egoera interpretatu ahal izateko eta euskararen aldeko jarrerak lantzeko. Baita sormen linguistikoa bultzatzeko, edo hizkera, euskalki eta erregistro desberdinen ezaugarriak eta funtzioak berezitu eta modu egokian erabiltzen ikasteko. Jarrera hau, bestalde, gizarte mailan ere errotu eta hedatu beharko litzateke.
- Ona litzateke, “Egokitasunean” eta komunikazioan oinarrituriko planteamenduaren barruan erregistroak erabiltzen erakustea, eta hizkuntzaren alderdi ludikoa lantzea, ahozkotasunari garrantzi handiagoa emanaz.
- Euskalkien oinarritzko ezagupena zabaldu behar da ikasle guztien artean, ikasketa honen bidez, hainbat eremutako ikasleen arteko harreman-sareak osatuz.

²⁵ EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA eta EUSKALTZAINDIA (2008): *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Euskaltzaindia. Bilbo.

²⁶ EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (2009): *Ikastolen hizkuntza proiektua*. E.H.ko Ikastolen Konfederazioa. Zamudio.

XXI. mendeko euskaldunak: "Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!"

- Irakurzaletasuna bultzatu beharko litzateke, hizkuntzaren eza-gupena hobetzeko eta kode idatzi formalean trebatzeko.
- Hedabideek estandarraren garapenean eta finkaketan duten garrantzia zein den jakinik, modua bilatu beharko litzateke, berauen papera eta funtzioak onar ditzaten eta hizkuntza eredu egokiak eta erreferentzialak gizartera ditzaten.
- Administrazioetik eta Udaletatik bereziki, haur eta gazteen eremu hurbilak euskalduntzera zuzenduriko egitasmoak sustatu eta indartu beharko dira, berauetan ere hizkera adierazkorraren inguruko irizpideak erabil daitezten ahaleginduz.

